



Protesta egin dute Beasainen, CAFek Israelekin dituen negozioak apurtzea eskatzeko

ARGIA :: 29/11/2025

"Euskal Herrian, eufemismorik gabe, argi esaten dugu: CAF Israelgo genozidioaren konplize zuzena da", adierazi dute. Suhiltzaileek askatu egin dituzte Beasaingo CAFen kateatu diren ekintzaileak.

Azaroaren 29an, Palestinari elkartasuna adierazteko nazioarteko egunean, hainbat ekintzaile Beasaingo CAF enpresaren lantegiaren aurrean elkartu dira, eta kate bidez lepoa lantegiaren sarrerara lotu dute. Palestinari elkartasuna adierazteko eta CAF seinalatzeko egin dute protesta, Israelen eraikitzen ari den trena ez delako "garraiobide neutrala", baizik eta "anexio eta apartheid tresna".

Hiru puntutan azpimarratu dute hori: trenaren funtzioa da kolonia ilegalak elkarren artean lotzea; auzo palestinarrak isolatzea du helburu; eta populazio kolonoaren mugikortasuna errazten du. "CAFek ez du soilik okupazioaren gainean eraikitzen: okupazio hori martxan jartzen du", azpimarratu dute irakurketan: "Israelgo kontratu bakoitza odolez zikindutako kontratua da".

Boikoterako deia egin dute manifestariek, eta "edonolakoa" izan behar duela azpimarratu: politikoa, ekonomikoa, akademikoa, kulturala eta kirolekoa.

Ekintza hasi eta gutxira, Ertzaintzako lau furgoneta bertaratu dira, baina ekintza "bortizik" ez zegoela eta, alde egin dute. Suhiltzaileek askatu dituzte dagoeneko.

<https://eh.lahaine.org/protesta-egin-dute-beasainen-cafek-israelekin-dituen>